

LUGARITZEN ERE ISURTZEN ZEN SAGARDOA

AIETEKOA EDO LUGARITZEKOA TRADIZIO HANDIKO IBILBIDEA IZAN ARREN, ORAIN, TAMALEZ, ZEHARO GALDUTA DAGO

Donostiarrek maiteenetakoa eta ezagunenetakoa duten sagardo ibilbidea Gipuzkoako hiriburutik Hernanirantz doa, Urumea bailaran barrena. Bide horretantxe daude tradizio eta historia handiko hainbat sagardotegi. Berez indartsua zen sagardo ibilbidea are garrantzitsuago bihurtu zen Donostia eta Hernani lotzen zituen tranbia zaharra martxan jarri zutenean.

Orduraz geroztik ehun urte pasa dira.

Jose Mari MARTINEZ



Munto baserria, Aiete auzoan -garai batean Lugaritz deiturikoa- zeuden sagardotegietako bat.

Donostiar askok, Antigua auzokoak tartean, ezagutu zituzten Goiko Galtzadako bide bazterrean zeuden sagardotegiak. Horiexek zituzten bere aisialdirako eta atseguenerako gune maiteak. Antzina, Madril eta Paris lotzen zituen errepidearen adarretako bat zen galtzada hura, egungo Aiete auzoa zeharkatzen zuena.

Berez Madril-Paris errepi-dea Hernanitik, Astigarragatik, Oiartzundik eta Irundik pasatzen zen, baina albo batera uzten zuen Donostia. Horrengatik eraiki zuten Goiko Galtzada Hernanitik, Oriamendi mendia inguratuz, eta galtzada hura Aietetik barrena Donostia erdialderaino iristen zen.

Egun Aiete izena duen auzoak badu lehenagoko euskal toponimia, Lugaritz. Aiete izenak jatorri gaskoia dauka, Morlansek edo Puyok bezala, eta badirudi familia batengandik datorkiola izena auzoari. Aiet sendia bizitzera etorri zen bertara eta jauregia eraiki zuen, hortik auzoaren izena. Donostiako txoko honek izugarrizko

etxetxo


sagardotegia

sagardoa txotxetik

Albiasu (Lekunberritik 3 Kmetara)

☎ 948-60 46 91

NAFARROA





Indalecio Bizkarrondo Bilintx bertsolari eta sagardozalea.

sagardo giroa bizi zuen garai batean, nahiz eta sagardotegi kopurua Altxakoa baino makalxeagoa izan. Antzina independentea zen eta egun Donostiari lotuta dagoen auzo horretan 46 sagardogile zeuden 1931n. Aipatu beharra dago, gainera, urte berean 99 sagardogile zeudela erroldatuak Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiak gordeta daukan informazioaren arabera.

Orain urte asko, Amara Zaharrean hasten zuten sagardozaleek beren ibilbidea; Lokate sagardotegian zeukaten geldialdia egin beharra, Mendizabal familiarena berau. Aldiz, erronda Antiguatik hasten zutenek, lehendabiziko geldialdia, Seminario inguruan zegoen Flores sagardotegian egin ohi zuten,

Lasarte familiarena berau. Ix-turin-gaina bezala ezaguna zen hartan Munto sagardotegia zegoen, Illarretarrena. Hauxe da denboran bizien irautea lortu duen sagardotegia, eta donostiarrak oraindik malenkoniaz gogoratzen dutena. Gaur egun Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza den eraikuntza inguru horretan, La Cumbre deitzen denaren parean, sagardotegi bat omen zegoen, Santa Teresa sagardotegia, Munto eta Pintore baserrien inguruan behar zuena.

Aieteko zonaldean eta inguruan, 1931. urteko sagardogile artean hauek nabarmen ziren ekoizten zituzten litroengatik: Muntok 50.506 litro, Floresek 119.994 litro eta Lokatek 110.882 litro. Katxolako Er-

dozia familia ere ezaguna zen orduko sagardo munduan.

Eta Santa Teresa sagardotegian gertatu zen, hain juxtu, Indalecio Bizkarrondo Bilintx (1831-1876) poeta donostiarraren bizitzan pasadizo ezagunenetakoa dena. Lagun koadrilarekin joana zen nonbait Bilintx sagardotegira, eta non ikusten duten koadrilako beste lagun bat, Domingo Kanpaña, mando baten gainean sagardotegira iristen.

“

Bilintx sagardozale amorratua zela ezaguna da. Poeta donostiarrari sagardotegietan gertatutako pasadizo asko kontatzen dira

Kanpañak Fidel Mujikaren litografian lan egiten zuen, San Vicente kalearekin izkiri egiten zuen Narrika kalean. Han ez zen ez argindarrik ezta gasik ere, eta mando zuri batek jartzen zituen martxan hango makinak. Besteen artean, Kanpañaren lana, mando huraxe zaintzea zen, jaten ematea eta Urumean garbitzea, kasu. Hortaz, mando gainean ibiltzen zen hirian barrena gizon handi eta indartsu hura.

Halaxe iritsi zen Santa Teresa sagardotegira ere, mando gainean. Arrain-gorriak prestatzen ari zen Bilintxek bazekien horren berri eta, bertsotan, halaxe kantatu omen zion iritsi berria zen Kanpañari:

*Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
etzijuak utsikan
mundu orren gaña.
Azpiyan dujuana
mandua dek baña,
gañekua ere badek
azpikua aña,
mando baten gañian
bestia alajaña!*

Ahoz aho zabaldu den bertsio batek kontatzen duenez, Kanpañak ere bertsotan erantzun omen zion, halaxe:

*Indalexio, Indalexio,
Indalexio moko,
uste al dek, uste al dek
ez autala joko.*

Bilintxi ez zitzaion batere gustatzen bere ezaugarri fisiko nabarmenenaren aipua besteren ahotan entzutea. Haurra zenean, hirugarren solairu batek erori zen eta istripuaren ondorio nabarmena zen huraxe, eta asko mintzen zuten halako

isekek. Segituan, eta haserre antzera, erantzun omen zion Kanpañari:

*Berriz esaten baidak
Indalexio "Moko",
ezurrak autsi arte
ez aut nik lagako.*

Hortik aurrerakoak ezezagunak diren arren, segura aski, ika-mika txikia, horretan geratuko zen eta koadrilan egun pasa ederraz gozatuko zuten guztiek, arrain-gorriak janez eta sagardo trago ederrak eginez.

Bilintxek sagardoa maite zuela ezaguna da, eta halaxe erakusten du Dionisio Azkue Dunixik kontatzen duen beste pasadizo batek. Orduko hartan Mirakontxako aroztegi batean lan egiten zuen, poesiak ez zuen nonbait jateko adina ematen. Hala, nagusiak, Bilintxi eta bere lankideari altzari batzuk Ixturin gainean zegoen jauregira eramateko agindu zion, Munto baserriaren ondoan. Sagardotegia omen zegoen inguru haieran, Santa Teresa, seguru aski. Lanik ez egiteko ados jarri ziren bi lankideak, eta elkarri esan zioten: «Aizak, sagardoa edan bear diagu. Palaziyo ontan zakurra izaten dek, bai, ta egin zagu papera zakurra zaunkaka irten eta guk alde egin bear izan diagula».

Eta halaxe egin zuten; altzari, gurdi eta guzti bertan utzi eta sagardotegira. Bere parrandetan, Bilintxek, beste donostiar


askok bezala, txangoak luzatu egiten zituen, eta, oinez, Hernaniraino ere iristen zen; Aieteko Katxola sagardotegitik pasatuz, Oria Bentatik jaitzi eta Oriamendi alborra utziz iristen zen Hernaniraino, Bidaurreatik eta Etxearretik barrena.

Bat-bateko bertsogintzan ere aritzen zen Bilintx, aurretik Kanpañarekin egindako saioan aipatu bezala.


Kontatzen dutenez, Hernaniko sagardotegi batean ika-mika txikia izan omen zuen bertsolari ezezagun batekin, bere izena ez baitakigu egunotan. Bertsolari honek buria egin omen zion Bilintx poeta donostiarrari, bere aurpegi berezia tarteko. Bertsotan hasi zitzaion Bilintxi, bere akats fisiko propioaz ahaztuta bezala, begi-okerra baitzen bertsolari ezezagun hura. Bertsolariak ausarki halaxe kantatu omen zion: «Moko okerrak autsi au! Autsi au Moko okerrak!». Poeta donostiarrak segituan honela erantzun zion: «Ni moko oker? Iri bai irudit, oker ikusten dekelakol!».

Orduan Aiete auzoan bizi-bizirik zegoen sagardo giroaz apenas ezer geratzen den gaur egun. Hortxe dago harriz harri berreraikitako Katxola sagardotegia, garai hobeak etorriko zaizkiolakoan; baita Munto baserria ere, auzoko azkeneko sagardotegia, nahiko egoera kasarrean dagoena eta etorkizun argirik ez daukana.

Jose Mari MARTINEZ



LARRE-GAIN
Sagardotegia



Tel. 943 55 58 46
Larre-Gain Baserria
EREÑOTZU • HERNANI